304. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, abenduak 19

# BERRIGARA







## Urteari errepasoa 97

















LETE

arraindegia

Oxirondo Azoka.





Mikropigmentazio bejetala
2-3 urteko iraupena






Ezpain-
pigmentazio…

Tatuaje txikiak
2-3 urteko iraupena







Zimurren aurkako linea




C bitamina, tratamendu antioxidatzailea



Nutrizio-linea



Hidratazioralo linea berezia



Gazte-linea. Ezpainetarako pintura eta gel garbitzailea opari



Kolore-linea

**Giartzu**
edertze aretoa
Tf. 76 35 71



# MARGA

JANTZIDENDA

*Estiloa, dotoretasuna*
*eta*
*Gabonetarako*
*oparietan*
*prezio bereziak*

*ZORIONAK*
*ETA URTE BERRI ON!*

Marga modak, San Pedro 20
Tf. 76 05 37



# BERGARA

*KAFE PENTSIOA*

Bidekurutzeta 34 Tf.: 76 47 23

KAFETEGIA

Gosariak, pintxoak eta
meriendak

*Ordutegia: goizeko 7etatik*
*gaueko 10etara*

*ETA ZORIONAK DENOI!*

LOGELAK





**Saunier Duval**

DICOMAN S.L.

**San Lorentzo, 21**
20.570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
**Tf. 76 06 61**

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



# UGARTE

**AROZTEGIA**

**ALTZARIAK**
**DEKORAZIOA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

**Urte berri ona opa dizuegu bergarar guztioi**





San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefonoa eta faxa: 76 54 91

# aurkibidea

305. zenbakia. 1997ko abenduaren 26a. Urteari errepasoa. Ale berezia.


6 **Hilez hil:** Urtarrila

19 **Ikuspuntua:** Marta Moral

24 **Berriketan:** Eskarne Mujika

26 **Hilez hil:** Uztaila

33 **Ikuspuntua:** Iñigo Urrutia

38 **Berriketan:** Asier Altuna

51 **Jaiotako eta hildakoak**

52 **Datuen saltsa**

54 **Atrebentzia ezpada**




*Eneko Oregi, Hezkuntza Sailburuordea: "Eskola maparen erreforma liskarrik gabe, kalitate irizpideekin eta euskara indartuz egin nahi dugu".*

10



*German Larrañaga, kazetaria: "Kazetarien prestaketan eta gertuko erreferenteen faltan hutsuneak daude Errepublika Dominikarrean".*

16



*Amaia Samaniego, eskubaloi jokalaria: "Corteblancon titular izatera iristea da nire helburua. Hemen jarraitzea nahi dut".*

46

**BERRIGARA**

**ERROTALDE JAUREGIA 20570 Bergara**
**☎ 76 03 97 • Faxa: 76 29 77**

Bergarako Udalaren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

**Argitaratzailea:** Jardun Elkartea.
**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Eduardo Mendibil, Mikel Elkoroberezibar. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetzak:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Gorka Elortza, Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien. **Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Tirada:** 5.000 ale. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:** BERRIGARA. **Lege gordailua:** SS 50/91. **ISSN:** 1130-6599.

**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Geyser-Gastech S. A. inauguratu zuen Javier Retegi Industria sailburuak

Fagor Elektragailuak eta Vaillant alemanak sortutako Geyser Gastech enpresaren San Juango lantegia inauguratu zuen Javier Retegi Industria sailburuak urtarrilaren 28an. Inaugurazio ekitaldian Roman Sudupe Diputatu nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatea ere izan ziren, besteak beste. Urtarrilaren lehen egunetan ekin zioten lanari San Juango lantegian 35 lagunek. Gaur egun, ostera, 100 bat lagunek dihardute lanean gas berogailuak egiten. Asmoa datorren urtetik aurrera urtean 800.000 bat berogailu egitea da. Geyser Gastech S. A. liderra da mundu mailan gas bidezko berogailuen fabrikazioan.

## ESAN ZUTEN...



**PILI AZKARATE**
"Jendeak lehen janzten diru dexente gastatzen zuen; orain, berriz nahiago du bidaia on bat egitea"
**BEDELKARREKO IDAZKARI IZANDAKOA**



**PEDRO GARCIANDIA**
"Epai-mahai popularra, hasieran, legegile eta herritarrez osatua egon beharko litzateke"
**ABOKATUA**



**IÑIGO ZAITEGI**
"Direktiboak baino gehiago loteria saltzaileak ematen dugu"
**BERGARA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA**



## 20 urte ikurriñarekin

Aurtengo urtarrilaren 19an 20 urte bete ziren ikurriña Bergarako Udaletxean berriz ere jaso zela. Franco hilda, Jose Luis Elkoro Bergarako alkatearen eta beste herri batzuetako alkateen ekimenari esker, ikurriña legeztatzea lortu zen eta 1977ko San Sebastian eguneko bezperan Euskal Herriko hainbat udaletxetako balkoietan jaso zen herritarren poz eta txalo artean. Aurtengo urtarrilean Bergarako udaletxean ateratako argazkian, orduko Arrasateko, Zarautzeko, Azkoitiko, Oiartzungo, Legazpiko, Hernaniko eta Bergarako alkateak ikus ditzakezue.

Nerea
Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak
Simon Arrieta plaza 1 Tf. 76 19 52

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

## MOTZEAN

**ZULOA AGORROSINEN**

Urtarrilaren 25ean zuloa agertu zen Agorrosingo futbol zelaian. Igeltsu meatzeetan lur mugimenduren bat egon ei zen, errekako urak filtratu ostean. Agorrosin hilabete hatzuetan itxita egon zen eta BKEko futbol talde nagusiak Ipintzan jokatu behar izan zituen partiduak.

**PRESOAK GOSE GREBAN**

Mikel Askasibar eta Iñaki Arenaza preso bergararrek gose grebari ekin zioten urtarrilaren 25ean, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko.

**METAL ADARREKO LANGILEAK GREBAN**

Metal adarreko ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek urtarrilaren 27rako Gipuzkoa osorako egin zuten 24 orduko greba deialdiak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran. Herriko metal adarreko langileen %92ak egin zuen greba. Bergaran metal saileko 53 lantegi daude. Pikete informatiboak eta manifestazio jendetsua izan ziren egunean zehar.

**NIKOLAS MUJIKAREN 20 MARGO UDALARENTZAT**

Nikolas Mujika pintorearen seme-alabek 20 koadroko doaintza egin zioten Bergarako Udalari urte hasieran. Koadroak seme-alabak hil ondoren jasoko ditu Uda-



## Asegarce eta udalaren arteko hitzarmena

Victoriano Gallastegi alkateak eta Pedro Garcia Asegarceko kontseilariak hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 15ean Bergarako Udal Pilotalekuan urtean maiztasunez goi mailako pilota jaialdiak antolatzeko. Hitzarmena bost urterko sinatu zuten udaletxean.

## Urteko kirolaririk onenak



Agustin Aranzabal Realeko futbolaria aukeratu zuten Berrigarako irakurleek 1996eko kirolaririk onena. Kirol elkarterik onenaren saria, Bergara Igeri Elkarteak jaso zuen eta Jesus Jauregik urteetan herriko kirolaren alde egindako lanagatik sari berezia eraman zuen. Berrigarak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako sariketan, urtean nabarmendutako herriko kirol elkarteetako kirolariek ere saria jaso

## PROTAGONISTAK



**JUAN MARTIN ELEXPURU**

Bergara aldeko lexikoa izeneko tesia aurkeztu zuen urtarrilaren 28an Gasteizko Filologia Fakultatean. Bergaran esaten diren berbekin 10.000 hitzeko hiztegia osatu zuen.

**JON ANDONI URISABEL**

Pintore bergararrak Euskal Arteko VII. Biurtekoa Zornotzarte 96 lehiaketaren lehen saria jaso zuen pintura sailean urtarrilean.





**AMAGOIA EZENARRO**

Erizain bergararrak lehen saria eskuratu zuen Benicasimen izandako Erizaintza Intentsiboaren estatu mailako lehiaketan. Amagoiak estressari buruzko lan bat aurkeztu zuen bere lankidee-

erlojutegia
iRUDi
bitxitegia

*Konponketarako tailerra daukagu*

Ibargarai, 2 Tf. 76 51 65

Zorionak eta urte berri on.



## "San Martinen Estanpa" San Martinen heriotzaren 400. urteurrenean

Aurtengo otsailaren 5ean bete ziren 400 urte San Martin Agirre martiri bergarararra Japonen, Nagasakiko Nishizaka mendixkan, gurutziltzatu zutela. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ziren herrian. Alde batetik, "San Martinen Estanpa" musika ikuskizuna antzeztu zen Udal Pilotalekuan arrakasta haundiz. Bertan 400 bat bergararrek -herriko hainbat musika, antzerki, dantza edota kirol taldeetakoak- hartu zuten parte. Bestalde, Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzitako "San Martin: Gurutzebidea eta bidegurutzea (1597-1997)" liburua ere argitaratu zen eta baita San Martin Agirreri buruzko seilu berezia.

## ESAN ZUTEN...



**NORA PALMITANO**
"Argentinatik hona bizitzera etorri nintzenean, gaztelera albora laga eta euskaraz bizitzea erabaki nuen"
**IRAKASLEA**

**JESUS JAUREGI**
"Azkenaldian une txarrak bizi izan ditugu, Eskola kirolagatik edota haurrek kirola egiteko duten aukera zabalagatik"





**MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR**
"San Martinen garaikideak izan ziren ia gehienek esan dute San Martin Agirre zela eta bergararra

## Jose Luis Elkoro erbestera



Jose Luis Elkoro Bergarako alkate izandakoa eta HBko Mahai Nazionaleko kidea, Europako hainbat herrialdetara erbesteratu zen otsailean. Azkenengo Hauteskunde Orokorretan ETAri bere Alternatiba Demokratikoa zabaltzeko telebista espazioa lagatzeagatik gartzeleratuak izan ziren HBko Mahai Nazionaleko kideak. Jose Luis Elkoro, Karmelo Landa, Matti Iturralde eta Joseba Alvarez, berriz, Europan zehar ibili ziren Alternatiba Demokratikoaren berri ematen. Martxoan Euskal Herrira etorri ziren eta espetxeratu egin zituzten. Handik egun gutxira HBk fidantza ordaindu eta mahaikide guztiak aske geratu ziren. Bestalde, Mahai Nazionalaren gartzeleratzea salatu eta kide guztiak aske lagatzeko HBk Bergarako udaletxean aurkerztutako mozioa ez zuen onartu Udalbatzak otsailaren 17an. Pleno Aretoan jende ugari bildu zen eta gobernu taldearen kontrako oihuak entzun ziren.



BERGARA: Barrenkalea 35, Tf. 76 03 98 BEASAIN: Nafarroa etorbidea 1, Tf. 88 48 65 ARRASATE: Otalora z/g, Tf. 79 11 72

## M O T Z E A N

**SAN JOXEPE JUBILATUEN ELKARTEAREN BATZARRA**

Eratu berri zen San Joxepe jubilatu eta pentsiodunen elkartearen batzar orokorra egin zen otsailaren 18an. Elkartearen estatutuak onartu ziren, iaz egindakoaren balantzea egin zen eta aurtengo egitasmo eta aurrekontuak onartu ziren; bukatzeko, zuzendaritza batzordea berretsi egin zen.

**ETXANIZEK ETA IBABEK 17 URTE GARTZELAN**

Iñaki Ibabe eta Jose Mari Etxanizek gartzelan 17 urte bete zituzten otsailaren 19an. Senideak eta Gestoretako kideek preso hauen egoera eta kondenaren hiru laurdenak beteta zituztenez kalean egon beharko lirateekeela salatu zuten.

**PRESOEN ALDE**

Herrera de la Manchako espetxean gose greban zegoen Mikel Askasibar lankideari beren elkartasuna adierazteko enkartelada egin zuten San Martin plazan udaleko LABeko langileek otsailaren 1ean.

**HERRITARREN FOROAK**

Bergarako Elkarriko tailerrak bultzatutako herritarren foroei berriz ere ekin zitzaien otsailaren 13an. Sabino Aiestaran EHUko soziologo katedradunak kale istiluei buruzko hitzaldia eman zuen.




## Garraiolarien greba

Otsailaren lehen egunetan garraiolariek estatu osoan hasitako grebak eragina izan zuen Bergaran ere. Gasolindegietan gasolina barik geratu ziren eta supermerkatuetako apalak hutsik geratu ziren. Herriko hainbat lantegitan ere arazoak izan zituzten eta egun batzuetan langileak ez ziren lanera joan.

## Amodiozko Gutunak

Xabier Larrañaga getxotarrak irabazi zuen Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketako V. edizioko sari nagusia. Bigarren saria Maialen Torre mugerretarrak (Lapurdi) jaso zuen; irakurlearen saria, berriz, Joseba Santxo getxotarrak eta bergarar onenarena, azkenik, Jon Sanchezek. Sari banaketa San Balentin egunean egin zen Zabalotegiko aretoan. 194 gutun jaso ziren.




## P R O T A G O N I S T A K



**RIKARDO AZKARGORTA**

39 urteko pintore bergararra, Beart Bergarako Artisten elkarteko lehendakari izendatu zuten otsailean. Luis Laskurain ordezkatu zuen karguan.

**ELENA REIFS**

Arte Ederretan lizentziatutako 26 urteko bergararrak irabazi zuen Karnabaletako kartel lehiaketa. Udalak antolatutako lehiaketako saria 50.000 pezetakoa izan zen.





**DANI LASKURAIN**

Pintore bergarraren lan bat aukeratu zuten otsailean Marbellako Museo del grabado Español Contemporaneo delakoak deitutako IV. Sari Nazionalaren erakusketarako.

HIROL MODA • EHIZA • MENDIA

XAMARTIN KIROLAK

txandalak, zapatilak, txamarrak

Ibargarai 20, behea. ☎ 76 59 29

Zorionak



# Eneko Oregi

*Eneko Oregiren arabera, Jaurlaritzako Hezkuntza Saila Euskal Herriko enpresarik handienetakoa da, 18.000 langilerekin (irakasleak etabar zenbatuz gero). Oregi estratejia eta plangintza sailburuordea dugu.*

Gizartean hain gerrotuta egonik, hezkuntzako gaiak guztion ahotan izaten dira.

**- Legealdi honetan egindako lanetatik, zein nabarmenduko zenuke?**

- Hezkuntza Sailaren lanik inportanteena legealdi honetan eskola mapa esaten zaiona izan da. LOGSE legeak estatu osoan aldaketa sakonak ezarri zituen. Horretarako ikastetxe guztiak (publikoak zein pribatuak) berrantolatu behar ziren. 1995-96an ekin genion lan honi eta adostasun zabal baten barruan egin dira aldaketa guztiak, hezkuntzako sektore guztiekin izan gara harremanetan. Oraindik ere batxiler berria eta lanbide heziketa ziklo berrien plangintza amaitzea falta da.

**- Euskal Eskola Publikoaren legeak ere zeresan ugari eman du...**

- Lege hori joan zen legealdian onartu zen, 1993an. Ikastolei sare publikoan sartzeko aukera eman zitzaien eta, jakina denez, harrezkero publikoak bihurtu dira eskola mordo bat, nahiz eta bakoitzak bere nortasun propioa izan. Oraingo legealdi honen hasieran epaitegietara joandako laupabost kasu geratzen ziren, ikastolen barruko adostasun ezagatik. Kasu horiek konpondu dira eta ikastola bakoitza bere proiektua lantzen ari da.

**- Aurrera begira, zeintzuk dira erronka nagusiak?**

- Hiru erronka aipatuko nituzke: lehenbizi eskola maparen erreforma sektoreen arteko liskarrik gabe egitea; bigarrenik, erreforma hau kalitate irizpideekin egitea; eta azkenik, euskarazko irakaskuntza indartuz eta

segurtatuz. A ereduaren euskalduntzeko ahalmena indartu beharra dago akats nabarmenak dauzkalako, bereziki zona erdaldunetan. D eredua, hau da, euskaraz ikasi nahi duten ikasleen eskubidea ziurtatzeko irakaslegoa prestatzen jarraitu behar da; alde horretatik ahalegin haundia egin da azken urteotan irakasleak euskalduntzeko eta euskarazko materiala sortzeko.

**- Zer gertatuko da irakasle eszedentearekin eta bereziki euskaraz ez dakitenekin?**

- Irakasle eszedenterik ez dago. Egia da ume kopurua asko jaitsi dela. 14, 15 eta 16 urteko adinetan, adin bakoitzeko 20.000 bat ikasle daude eta 3 urteko haurretan, berriz, 15.000. Etorkizunean irakasle gutxiago egon beharko da eskolan klaseak ematen eta gehiago helduen irakaskuntzan, irakaskuntza espezializatuan..., etabar. Egia da irakasleen euskalduntzea areagotu egin beharko dela. Urteen etorrian euskaldunak ez diren irakasleak jubilatzen joango dira eta euskaldun irakasleei tokia lagako diete.

**- Bestalde, gaurko notizia da PSE-EE ez datorrela bat Hezkuntza Sailak datorren urterako prestatutako aurrekontuarekin. Sare publikoa bigarren maila batean geratzen dela salatu du.**

- PSE-EEk demagogia egiten du. Faltsua da gaur egun eskola pribatua, kontzertatua, eskola publikoaren kalterako hazten ari dela. Pakto eskolarra aurreko gobernua, Buesa zegoenean sinatu zen eta hori betetzen da. Partidu sozialistaren desmarkea faltsoa da. Kontra dagoela esaten du, baina baiezko botoa ematen dio aurrekontuari. Bestalde, datuak hor daude. Eskolaurrera sartzen diren umeetatik gehienak eskola publikoan sartzen dira. Eta hori indartu egin behar da, azken finean, eskola publikoa baita gizartearen bizkarrezurra.

**- Bukatzeko, zein iritzi daukazu atzera bota duten Agirre ministroaren dekretuaren gainean?**

- Egia da gizartean eta hezkuntza munduan eztabaida hori badagoela; humanidadeek, hau da, zientzia eta teknikarekin lotuta ez dauden ikasgaiek ez ote duten pisu gutxiegi. Baina, ministroak, antza, debate horretatik hartu duen gauza bakarra Espainiako historia, literatura eta geografia indartu behar direla izan da. Bere ekimena, nire iritzi apalean, españolismo eraso fuerte bat besterik ez da izan. EAEn behintzat ez dugu hori

**“Eskola maparen erreforma liskarrik gabe, kalitate irizpideekin eta euskara indartuz egin nahi dugu”**


Centro de Especialidades Odontológicas de Guipúzcoa, S.L.

**hagin klinika**

*Ibersaludekin hitzartuta*

| ARRASATE | BERGARA | ZUMARRAGA |
|---|---|---|
| Iturriotz 7 behea | Simon Arrieta plaza 3 2.B | Soraluze 1 1. ezkerra |
| Tf. 79 73 88 | Tf. 76 38 54 | Tf. 72 46 47 |

Haur eta helduentzako odontologia. Ortodontzia. Endodontzia.

Peridontzia. Zirugia. Inplanteak




## Korrika 10 Bergaran

Martxoaren 17an arratsaldeko hiruretan Bergarara heldu zen Korrikaren 10. edizioa. Eguraldia lagun, jendez gainezka agertu zitzaizkigun herriko kaleak euskararen aldeko lasterketan. Bergaran zazpi kilometro egin zituzten herriko hainbat elkarte, talde, ikastetxe edota erakundek. Korrikaren 10. edizioa martxoaren 14an hasi zen Arantzazun eta Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, hilaren 23an amaitu zen Bilbon. Korrikaren inguruan hainbat kultur iharduera antolatu ziren Berga-

## ESAN ZUTEN...



**ESTEBAN MURUAMENDIARAZ**
"Greban, garraiolariek administrazioaren kontra erakutsi dugun batasuna, da inportanteena "
**SINTRAGIKO IDAZKARIA**

**AINHOA LETE**
"AEK mantentzeko Korrika beharrezkoa da oraindik"
**AKULU AEK EUSKALTEGIKOA**





**IDOIA AZKARATE**
"Urteekin eta esperientziarekin barruan daramadan pailazo hori hazten joan dela sentitzen dut"
**OIHULARI KLOWNEKOA**

**Aberri Eguna.** Eusko Alderdi Jeltzaleak Bergaran ospatu zuen Aberri Eguna martxoaren 30ean. Udal Pilotalekuan ekitaldi politikoa izan zen eta ondoren bazkaria. Bertan, Jose Antonio Ardanza Lehendakaria eta Joseba Egibar GBBko presidentea eta EBBko bozeramalea izan ziren, besteak beste.




## Greban Tavesa eta Algodoneran

Martxoaren 21ean amaiera jakinik gabeko huelga hasi zuten Algodonera eta Tavesako langileek. Azken hiru urteetan sinatzeke zuten lan konbenioa sinatzea, biabilitate plana negoziatzea eta inbertsioak egitea eskatzen zuten langileek. Hiru hilabete inguru eman zuten greban.

URTE BERRI ON!
Mekolalde taberna
ABENDUAREN 25EAN (Natibitate eguna) eta
URTARRILAREN 1EAN ITXITA
Mekolalde auzoa z/g Tf. 76 50 18

## MOTZEAN

**ERRAMU ZAPATUKO FERIA**

Jende ugari bildu zen martxoaren 22an Erramu Zapatu egunean. Besteak beste, abelburuak, baserriko produktuak, txorimaloak eta makineria izan ziren ikusgai.

Egun berean, Jose Luis Elkororen eta Mahai Nazionalaren aldeko manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetatik zehar.

**EHE-EN MANIFESTAZIOA ETA JAIALDIA**

Euskal Herriko justizian euskara bultzatzeko eskatzeko manifestazioa antolatu zuen Euskal Herrian Euskaraz erakundeak martxoaren 18an Bergaran. Gauean, berriz, rock kontzertua izan zen Jam aretoan.

**AZTERKETA GEOTEKNIKOA AGORROSINEN**

Labein ingenieritza enpresako langileek Agorrosingo futbol zelaiaren azpialdean ikerketa geologiko-geoteknikoa egin zuten martxoko lehen astean. Futbol zelaian zulo bat agertu zelako egin zen azterketa. Ikerketaren kostua milioi eta erdi pezeta pasakoa izan zen eta emaitzak hilabete geroago jakin ziren. Labein enpresako ingeneruek Agorrosinen konponketa serio eta garesti samarra egitea gomendatu zuten baina BKEk zuloa tapatu eta zelaia berriz ere erabiltzea erabaki



## Hilabete euririk egin barik

Neguko azken hilabetea erabat lehorra izan zen Bergaran, ez baitzen ia euri tantarik jausi. Iazko abenduan eta aurtengo urtarrilean euri dexente egin bazuen ere, otsailean 35 litro zenbatu ziren bakarrik eta martxoaren lehen hamabost egunetan ez zuen euririk egin. Otsailaren 14tik martxoaren 16ra arte ez zuen euririk

## Eragin txikia HBk egindako greba deialdiak




Mahai Nazionararen gartzeleratzearen aurrean, HBk martxoaren 7rako egin zuen greba orokorrerako deialdiak eragin ezberdina izan zuen herrian. Enpresetan ez zuen ia eraginik izan eta erdiko denda eta taberna gehienek ateak zabaldu zituzten, batzuk itxita egon baziren ere. Ertzaintzak Alternatiba Demokratikoa banatzen ari ziren 11 lagun atxilotu zituen.

## PROTAGONISTAK



**SERAFIN ESNAOLA**

81 urteko apaiz errezildarrak "Trintxerpe, el cierre de una iglesia" izeneko bere bigarren liburua argitaratu zuen. 1964an Trintxerpen eliza itxi zeneko gora beherak kontatzen dira 287 orriko liburuan.

**LUZIA AMUTXASTEGI**

100 urte bete zituen martxoaren 2an. Azkatzu baserrikoa, 14 urte daramatza zaharren egoitzan. Bere ehungarren urteurrenean jaialdi berezia antolatu zen Mizpirualden.





**MILA ANDUEZA**

Bergarako Orfeoiko presidente berria aukeratua izan zen martxoan. Datorren urtean Orfeoiaren 75. urteurreneko ekitaldiak antolatzea izango da bere agintaldiko erronkarik inportanteena.

*Kosmetika.*
*Oparigaiak.*
*Eder gela.*
*Bio solariuma.*

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Igaro
Usaindegia

IGARO USAINDEGIA, BARRENKALEA, 35. TFNOA: 76 17 27



## Udal aurrekontuak onartu ziren

Udal aurrekontuak onartu zituen Udalbatzak apirilaren 21ean, hiruko gobernuko alderdien aldeko botuekin eta HBren ezezkoarekin. 2.170 milioi pezetako aurrekontua izan du aurten Udalak. Horietatik 1.875 milioi udalekoak dira, 233 Mizpirualde zaharren egoitzakoak eta 62 milioi Udal Euskaltegikoak. Udalaren zorra %18,9an dago gaur egun, iaz baino ia puntu bat gutxiago. Aurtengo udal aurrekontuak iazkoen antzerakoak direla esan daiteke. Gobernuaren helburu nagusia gastuari eutsi eta zorra murriztea da, horregatik txikiak dira inbertsioetara bideratzen diren partidak. HBk aurrekontuen osaketan ezin parte hartu izana salatu zuen.

## ESAN ZUTEN...



**REYES KORKOSTEGI**

"Oñatiarra naiz okela, hezur eta arima eta bergararra *cosorte* eta *con suerte*"

**OÑATIKO ALKATE OHIA**



**PEDRO MUJIKA**

"Oso positiboa izango litzateke antzerkia hezkuntza arautuan sartzea"

**ANTZERKI ZALEA**



**FERNANDO ETXABARRI**

"Ekartzen ditugun taldeak ez dira punta-puntakoak, baina Jam bezalako areto batentzat apropo-sak"

## Udal intsumisoen elkarteko estatutuak

Udalbatzak EA eta HBren aldeko botuekin onartu egin zituen Udal intsumisoen elkarteko estatutuak apirilaren 28an. EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EEk kontra bozkatu zuen. Besteak beste, Udalak ateratzen dituen plazak betetzeko oinarrietan Kode penaleko intsumisioari buruzko neurriak ez betearaztea onartu





## Lau elkartek 25 urte

Bergara Igeri elkarteak, Ipintza institutuak, Jubilatuen elkarteak eta Aranzadi ikastolak 25 urte bete dituzte aurten. Martxo eta apirilean hainbat jarduera eta ekitaldi antolatu zituzten urteurrenak ospatzeko. Kirol, hezkuntz eta gizarte elkarte hauei zorionak.



Urte berri on!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxa 76 11 88
20.570 BERGARA

## MOTZEAN

**ELKORORI ONGI-ETORRIA**

Jose Luis Elkorori ongi etorria egin zioten apirilaren 17an San Martin plazan. Elkoro hilabete pasa Europako hainbat herritan eta gartzelan egun batzuk eman ondoren, berriz ere herrira itzuli zen.

**GORLAKO KANTINA ADJUDIKATU ZEN**

Apirilean Udalbatzak hartutako erabakiaren arabera, Jose Antonio Azkarate bergarararri urtebeterako adjudikatu zitzaion Gorlako kantina berria.

**BARRENKALEKOEN BAZKARIA**

Barrenkaleko 200 bat lagun elkartu ziren apirilaren 18an San Martin plazako arkupeetan bazkaltzeko.

**MENDI ASTEA**

Apirilaren 20tik 27ra bitartean Mendi Astea izan zen Bergaran Jardunek, Pol-Polek eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta. Hainbat ekitaldi antolatu ziren eta besteak beste, Jon Lazkanok, Iñurrategi anaiek eta Iker Etxeberriak eta Roman Laskurainek egindako azken bidaietako diapositibak
erakutsi ziren.

**ZABALETA ONENA ARRATEN**

Aitor Zabaleta kotxe pilotuak irabazi zuen apirilaren 20an jokatutako Arrateko



## Turistak Bergaran

Martxoko azken egunetan eta apirileko lehen astean, Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, zabalik izan zen Turismo bulegoa. 200 kontsulta inguru jaso ziren bertan, gehienak frantziar, belgiar, katalandar, donostiar eta bilbotarrenak. Eguraldiak lagundu zuenez, kanpotar askok jan eta lo egin zuen Bergaran.

## Hala Madrid!!

Real Madrid futbol taldearen herriko zaletu talde batek peña sortzeko lehen urratsak eman zituen apirilean. 45 bat lagun elkartu ziren eta apirilean zehar izena emateko epea zabalik izan zuten. Era berean, Piti Unamuno lagunartearen presidente eta Bixente Unamuno presidente orde izendatu zituzten.



## PROTAGONISTAK



**MAITE ARISTEGI**

34 urteko bergarar abokatua Euskal Herriko Nekazarien (EHNE) idazkari orokor izendatu zuten apirilaren 12an. Baserritarren sindikatuaren lehen idazkari orkorra da.

**FERNANDO ETXEBERRIA**

Bergarako UNEDeko idazkari izendatu zuten. Ezkurran jaioa, Bergaran urte asko daramatza lanean. Seminarioko eta Aranzadi Ikastolako zuzendari izandakoa.





**FELIX BERROCAL**

BKEko bigarren erregional mailako futbol taldearen entrenatzaile izendatu zuten apirilean Jabier Iturbe ordezkatuz.

ARATZ
ALBAITARI KLINIKA
Zurradero 6, behea
Telefonoa: 76 70 67
Mobila: 907 48 71 19
Aratzek urte berri ona opa die bezero guztiei.



# German Larrañaga

*XXI. mendearen atarian oraindik ere badira 'Amerikak egitera' doazen euskaldunak. German Larrañaga kazetariari Errepublika Dominikarrean lan egiteko aukera sortu zitzaionean ez zuen bi aldiz pentsatu.*

Bere hitzetan, *"oso erakargarria da hemen kazetaria izatea"*. Kontratua luzatu berri diote eta gutxienez irailera arte izango da Karibe aldean lanean.

**- Zela sortu zitzaizun Errepublikara joateko aukera?**

- Iruñako Bega Comunicacion enpresaren bitartez izan zen. Enpresa honi Santo Domingoko Listin Diario egunkaria berriztea agindu zioten eta diseinadore/infografo bat behar zuten. Logroñoko La Voz de La Riojan lanean ari nintzen eta egoera oso itxaropentsua ez zenez, Atlantikoa zeharkatzera animatu nintzen.

**- Zelako lana egiten duzu Listin Diarion?**

- Hasieran infografo lanak egiten nituen, mapak, grafiko informatiboak etabar. Grafikoek gero eta garrantzi haundiagoa dute albisteak ulertzeko orduan eta hemen garatu beharreko arloa zen. Aldi berean, egunkariaren diseinu berrian kolaboratu izan dut eta orain diseinu eta edizio buruaren laguntzailea naiz. Diseinu eta infografia saila eta egunkariaren kalitate kontrola eramaten dugu.

**- Tradizio haundiko egunkaria izanik, zailagoa izan al da aldaketak ezartzea?**

- Edozein enpresatan ere aldaketak egitea nekeza baldin bada, are eta gehiago 108 urte egin dituen egunkari batean. Diseinu aldaketa ez da kanpo itxurara mugatzen; lan sistemaren aldaketa ere suposatu du. Hori da lan gehien eman diguna.

**- Zelako egunkaria da Listin Diario? Konpetentzia haundia dago?**

- Erreferentziako egunkaria eta salduena da gurea; eragin haundia

dauka bai gobernuaren eta baita herriaren martxan. Konpetentziari dagokionez, irakurketa indizeak kontutan izanik harritzekoa bada ere, goizean bost egunkari kaleratzen dira eta arratsaldean lau. Konpetentzia bi enpresaren artekoa da; alde batetik Listin Diario kaleratzen duena eta bestetik espainiar baten esku dagoen Corripio editora, arratsaldeko egunkari liderraren jabea. Konpetentziak hemengo prentsan imaginazio gutxi dagoela erakutsi du, oso ohizkoa baita ideiak kopiatu eta kontrako egunkarietako profesionalak fitxatzea.

**- Badago diferentziarik Espainiar Estatuko eta Errepublikako kazetaritzen artean?**

- Errepublikako kazetaritzak hutsune ugari ditu, batez ere kazetarien prestaketan eta gertuko errefenteen faltan. Iturri ofizialen menpekotasun haundia duen kazetaritza da eta ez da batere kritikoa hainbat puntutan, talde ekonomiko haundien eta gobernuaren publizitateari esker bizi delako. Egia esateko oso erakargarria da hemen kazetaria izatea, salatzeko kasu asko eta hobetzeko beste asko daudelako. Estiloari dagokionez, titularrak oso deigarriak dira; Estatu Batuen eta ingelesaren eraginez telegramak ematen dute, artikulorik eta preposiziorik gabe.

**- Zein ikuspegi ematen da hor Euskal Herriko egoeraz?**

- Nazioarteko agentziek zabaldutako ikuspegia izaten da eta niri behintzat nahiko distortsionatua dagoela iruditzen zait. Terrorismoaren kasuan adibidez, gatazkaren inguruko ikuspegi nahiko erromantikoa ematen da eta "terrorista" hitza erabili beharrean "separatista" hitza erabiltzen dute. Terrorismoaren gaia nahiko gertu geratzen zaie hemen deportatutako etarrak daudelako. Horregatik euskalduna eta etarraren arteko paralelismo hori egiten dute.

**- Bertako bizimoduaz, zer da gehien harritu zaituena?**

- Kontraste haundiko herria da. Adibidez zerbitzu publikoak desastre bat dira eta bestalde telekomunikazio arloan oso aurreraturik daude Estatu Batuen gertutasunagatik. Batez ere herritarrek bizitzaz gozatzeko daukaten gogoa destakatuko nuke. Jendea lasai bizi da eta

## "Kazetarien prestaketan eta gertuko erreferenteen faltan hutsuneak daude Errepublikan"

oso irekia da. Dena den, turistentzat erosotasun guztiak daude baina hemen lan egitea hor bezain gogorra da. Herrimina? Familia eta lagunak faltan botatzen dira baina gazte asko lan egiteko emigratzera behartuta gaude. Latinoamerikan lizentziatu eta teknikoent-



Urte berria

# urtarrilaren 9an

hasiko da.



*Ale berri on!*

# Urtea joan da



Marta Moral

Atzera begiratzen dugunean, urtea zein azkar joan zaigun pentsatzen dugu sarri; ez gara konturatzen zenbat gauza egin ditugun eta zenbat gauza gertatu diren. Egia da zaila dela guztiekin gogoratzea.
Igarotzear dugun urte hau mobidu samarra izan da politika kontuetan. Espainia ondo omen doa, Aznarrek dionez, baina berriz ere ahaztu egin gara Galen kontuez. Aldiz, titularretara itzuli dira Filesa eta bai Conde. 97a telebista digitalen urtea izan da, gai horretan agintzen dutenak borrokan ibili diren urtea.
Badirudi komunikazioaren mundu honetan oso arlo katramilatsu eta erdi mafiosoan dihardugula, eta horren lekuko, horra Pedro J. kasua.
Tristea eta lotsagarria iruditzen zait bideotxoen gai hau. Erdiaz ez gara enteratu, zurrumurruak bakarrik entzun ditugu. Epaileei eta erregeari buruzko bideoak ere badaudela entzun da, baina entzunena Pedro J.-ari buruzkoa izan da. Penagarria da herri honetan gauzak presioen edo oso txukunak ez diren (hala deitzen diete batzuek) bideoen eraginez mugitzea. Benetan diotsuet, niri gutxi inporta zaizkit bakoitzak dituen oheko ohiturak, baina antza denez, gehienentzako hori Estatu arazoa da.
Pedro J.-aren alde, esan behar dut berak behintzat ez zuela hego azpian bururik gorde. Gertatu zenaz, El Mundok berak argitaratuta enteratu gara, bere erara, jakina, baina hori ere logikoa da.
Zergatik iruditzen zaidan hau 97ko gairik garrantzitsuenetako bat? Bada, garbi erakusten duelako zer nolako maila dugun, egiaz interesatzen zaiguna dela Antonio Daviden eta Rociito-ren alabatxoak bere urtebetetzea aiton-amonekin ospatzen duen ala bakoitza bere aldetik Bahamasetara edo Argentinara doa. Benetan aitortu beharra dago jaun gominadunak, negozio haundietan murgilduta daudenak, hitz egitean katedra jartzen dutenak, iritzi publikoa baldintzatzen dutenak, Al Capone-ren bertsio modernoa dira, eta ez besterik. Tristeena da 1998an gauza guztiak berdin izango direla seguruena.
Galindo, Barrionuevo, Vera eta kidekoek eurek nahi dutena egingo dute eta bitartean, herritarroi eskandaluzkoa irudituko zaigu Pedro J. diskoteka bateko harreman publikoen arduradunaz oheratzea eta lotsagabe batek bideoan hartu eta rastroan saltzea.
Benetan patetikoa da, 97az izango dudan oroitzapena bezain patetikoa. ■

Barrenkalea 16
Tf. 76 20 66
ARGAZKI
CORPORATION 9,9
FOTO VIDEO




## Tavesa eta Algodonerako langileak bi hilabete pasatxo huelgan

Maiatz bukaeran 70 egun bete zituzten huelgan Tavesa eta Algodonerako langileek. Maiatzean zehar protesta ekitaldiekin jarraitu zuten eta Pazkuetako jaietan, Bitorianatxoren jeitsieraren aurretik, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar. Jaien bezperan langileen eta zuzendaritzaren arteko negoziazioak eten egin ziren, inbertsioen eta langile berrien soldaten inguruan sindikatuek eta zuzendaritzak zituzten ezberdintasunak zirela medio. Ekainera arte ez zen kontaktu berririk egon. Bitartean, sindikatuen arteko ezberdintasunak areagotu egin ziren.

## ESAN ZUTEN...



**AITOR ELKORO**
"Partidu guztiak dira zailak; finala bezain zaila txapelketako lehenengo partidua izan zen"
**PILOTARIA**



**PELLO ZABALA**
"Tenporetan haizeak hegoaldetik jo duenez, uda berotsua izango dugu aurten"
**EGURALDI GIZONA**



**JESUS MARI LAZKANO**
"Gernica koadroa Gernikan egon beharko litzateke"
**PINTOREA**



## Giro ederra jaietan

Maiatzaren 16tik 20ra bitartean lana eta eguneroko arazoak ahaztu eta jai giroa nagusitu zen Bergaran. Aurten jaietan bestetan baino jende gutxiago ibili ei zen, baina eguraldi ona egin zuen eta giroa ere ederra izan zen. Jaien kontuetatik aparte, zapatu gauean eta domeka goizaldean istiluak izan ziren.

Burua estalita zeramaten dozena bat lagunek Epaitegiko fatxadari su eman eta ate nagusia erabat kiskalita laga zuten; Euskadiko Kutxako Fraiskozuriko bulegoan ere koktelak jaurti eta kristalak apurtu zituzten; Batzokian eta Correoseko egoitzan eraso zieten eta hainbat kontenedore erre zituzten. Ertzaintzak pilotak jaurti zituen hainbat manifestariren kontra.

Matxiategi Elektragintza C.B.

Fleming Doktorea, 5 ☎ 76 19 94

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAZIOA

Gabon zoriontsuak opa dizkizugu

## MOTZEAN

**IRUKURUTZETAKO ERROMERIA**

Maiatzeko lehenengo domekan Irukurutzetako erromeria izan zen aurten ere. Bittoriano Gandiagak Pagobedeinkatuan meza eman zuen, ondoren salda eta txorizoa banatu ziren eta jarraian erromeria izan zen. Jende ugari bildu zen eguraldi ona egin baitzuen.

**HAURREN EUSKAL JAIA**

400 bat dantzari bildu ziren maiatzaren 11n Bergaran, haurren euskal jaian. Goiozean zehar kalez-kale ibili ziren dantzan eta arratsaldean talde guztiekin alardea izan zen San Martin plazan.

**TXERRA AIASTUIRI ONGI ETORRIA**

Txerra Aiastui preso bergararrari ongi etorria eskaini zion Amnsitiaren Aldeko Batzordeak maiatzaren 17an, jaietan, San Martin plazan. Jende ugari bildu zen ekitaldian.

**ARANZADI IKASTOLAREN LIBURUA**

Aranzadi Ikastolaren historia jasotzen zuen liburua argitaratu zen maiatzean. 90 orrialdeko liburuan ikastolaren sorrera, 25 urteetan izandako aldaketak, 1991n Bergaran ospatutako Kilometroak jaiari buruzko artikulu eta argazkiak eta hainbat ikasle ohiren iritziak jaso ziren, besteak beste.



## Iñigo Urkullu Bergaran

Iñigo Urkullu, EAJko parlamentario eta Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeak euskal presoen hurbilketari buruz landu zuen txostenaren egilea, Bergaran izan zen maiatzaren 7an Elkarriren herritarren foroan parte hartzeko. Presoak Euskal Herriko lau gartzeletara eta inguruko probintzietako beste 10etara hurbiltzea proposatu zion Mayor Orejari Giza Eskubideen batzordeak.

## Gazi-gozoak futbolean

Maiatzaren 25ean Bergarak Pasaiaren kontra Ipintzan jokatu zuen partidua hiruna berdindu ostean, lehen erregional mailara jeitsi zen herriko futbol talde nagusia. Baina notizia onak ere izan genituen futbolean: emakumezkoen talde nagusia Gipuzkoako Kopako txapeldun orde izan zen eta infantilak Gipuzkoako onenak izan ziren.



## PROTAGONISTAK



**IKER EGIDAZU**

Miguel Altuna institutuko 18 urteko ikasleak irabazi zuen Jardunek jaietarako antolatu zuen pegatina lehiaketa. "Gustokua izan deiñ, danekin eiñ" izan zen esaldi saritua.

**MARIPI LASKURAIN**

33 urteko antzuolarra Antzuolako Idolaz euskara elkarteko presidente izendatu zuten. Jone Legorbururen ordez maiatzean. Idolaz 1993an eratu zen eta gaur egun 150 bazkide ditu.





**IÑAKI GABILONDO**

HBko zinegotzi berria. Maite Aristegik lagatako postua betetzeko kargu hartu zuen maiatzean. Metagrako produzkio arduraduna da.

GRUPO Image Center
Kiñu
ARGAZKIDENDA
Urte berri on!!
Barrenkalea 35 Telefonoa eta Faxa: 76 58 05




## Hiru hilabete huelgan egon ostean, lanera itzuli ziren Algodonera eta Tavesako langileak

Greban 87 egun eman ondoren, ekainaren 17an berriz ere lanera itzuli ziren Algodonera eta Tavesako langileak. Astebete lehenago 1997 eta 98ko lan konbenioa sinatu zuten sindikatuek eta zuzendaritzak: 1997rako %5,25eko soldata igoera eta 98rako KPIkoa adostu zuten. Enpresaren biabilitate plana (etorkizuneko inbertsioak, jubilazioak eta lanpostu berriak) negozioatzerako orduan ez ziren ados jarri eta soldata igoera bakarrik adostu zuten sindikatuek eta zuzendaritzak. Langileek martxoaren 21ean ekin zioten grebari eta hiru hilabetetan ugariak izan ziren protesta ekitaldiak eta bi aldeen arteko bilerak. Hiru hilabete horietan langile eta buruen arteko harremanak mikaztu eta okertu egin ziren.

## ESAN ZUTEN...



**IANIRE URBIETA**
"Urtean 30 bat txapelketetan aritzen gara. Iaz 10 irabazi eta zortzitan bigarren geratu ginen"
**DANTZARIA**



**JUAN CARLOS LOIDI**
"Julio Azkargorta kapitaina zen; ekintzailea, finantziaria, sortzailea"
**ABOKATU EKONOMILARIA**



**JUAN LUIS MARDARAS**
"Eibarrek ez du aurten maletinik bidali baina jaso bai, Albaceteri irabazi genionean"
**EIBARKO PRESIDENTEA**



## Julio Azkargorta enpresa gizonari omenaldia

Bergarako Udalak eta Miguel Altuna institutuak omenaldia eskaini zioten Julio Azkargorta enpresa gizona zenari ekainaren 13an. Ekitaldian Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Jabier Retegi Industria sailburuak, Juan Carlos Loidi Bilboko zinegotziak, Mikel Lazpiur enpresa gizonak eta Jose Mari Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak hartu zuten parte. Azkargortaren alargunari eta seme-alabei Urrezko insignia eta Hiribildu Agiria oparitu zien alkateak.



Iturkintza • Berogintza • Bainuak
Barrenkale, 35
Laskurain
☎ 76 24 89
URTE BERRI ON!!

## MOTZEAN

**INTXAURRONDOKO MARTXA**

Bergarako Udal Musika Bandak, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak konposatutako Intxaurrondoko martxa estreinatu zuen ekainaren 29an, Intxaurrondoko jaietan.

**EUSKADIKO TXAPELDUNAK**

Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeko Amaia Ortiz de Urbina, Nerea Mendizabal eta Ane Fernandezek Euskadiko Txapelketa lortu zuten ekainean eta Bartzelonan uztailean jokatu ziren Espainiako txapelketa jokatzeko sailkatu ziren.

**ARANS-GIRI SARIA**

Arans-Gi zentruko ikasle talde batek estatu mailan ONCE erakundeak antolatutako lehiaketa batean lehen saria jaso zuen ekainean. Arans-Giko zortzi ikaslek itsumenak jotako gorrentzako egutegi bat landu zuten eta argazki kamara bana eta 200.000 pezeta ikastetxearentzat jaso zuten sari gisa.

**900 BAT HAUR FINALISTA EGUNEAN**

Gipuzkoa osotik etorritako 900 haur inguru bildu ziren Bergaran ekainaren 8an finalista egunean. Ekitaldia Pol-Polek eta Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatu zuten haurrek urtean zehar egindako irteerei bukaera eman eta meritua aitortzeko.



## Eremu megalitiarra garbituta

Kapirixo elkarteak Elosu inguruko eremu megalitiarra garbitzeko 1994an ekindako lanari amaiera eman zion ekainean. Trekutzetik Karakatera bitartean 18 elementu megalitiar daude eta inguru horretan ibiltzen direnek ibilbide megalitikoa egin ahal izango dute aurrerantzean, panelen bitartez duela 4.500 urte inguruko aztarnei buruzko informazioa azaltzen baita.

## Santutxuko lursailak

Santutxuko ermita eta inguruko lursailak erabili ahal izateko kontratua sinatu zuten Udalak eta Elosuko Iriaungo San Andres parrokiak, lur sailen jabeak, ekainean. Kontratuan jasotzen denez, Elosuko parrokiak lursailak doan lagako dizkio Udalari aisialdirako jolastoki gisa erabiltzeko. Udalak, berriz, ingurua garbitu eta jatorrizko egoeran zaindu beharko du.



## PROTAGONISTAK



**JOSE ANTONIO IGARTUA**

Apaiz egin zeneko urrezko eztaiak ospatu zituen ekainaren 15ean, 73 urte zituela. Oñatiarra jaiotzez Bergaran urte ugari eman zituen. Jose Antonio urrian hil zen.

**ANTXON MAIZTEGI**

Igerilari bergararrak, Euskadiko kadete mailako urrezko domina lortu zuen 100 metro tximeleta proban, Santurtzin. Beste estiloetan ere 10 onenen artean sailkatu zen.





**IÑIGO URRUTIA**

Kazetaria, 33 urte. El Pais egunkariko Euskal Herriko edizioan hasi zen lanean Donostiako delegazioan. Deia egunkariko Gipuzkoako delegazioko buru izandakoa eta Herri Irratian ibilia.

• Proiektuak
• Dekorazioa

Rincones dekorazioa

Irala z/g. Telefonoa eta Faxa: (943) 76 52 98



# Eskarne Mujika

*Eskarne Mujika Gallastegik, udazkenean, Hungariako idazle den Agota Kristofen 'Koaderno Handia' nobela argitaratu zuen, Alberdania argitaletxearen eskutik. Eskarnek itzultzen duen bigarren nobela da hau.*

Nahiz eta aipatutako idazle eta nobela nahiko ezezagunak izan, kontatzen den istorioarekin guztiz liluratuta geratu zen Eskarne aurreneko aldiz irakurri zuenean.

**- Zergatik aukeratu zenuen idazle hori eta liburu hori? Ez da oso autore ezaguna...**

- Zergatik? Arrazoia ez da bakarra. Begira, zuk badakizu Hungaria non dagoen. Eta zer dakigu hangoen gainean? Gauza gutxi. Neuk behintzat. Eta hemen gerra zer den baldin badakigu, han ere ondotxo dakite. Zergatik ez horiek hobe ezagutu?

Beste arrazoietako bat: literatura oso bide sanoa iruditzen zaidalako beste kultura batzuen berri jasotzeko. Eta Agota Kristofek, nire ustetan, modu polit-politean jakin du guri bere inguruko eta barruko berri ematen.

Hirugarren arrazoia: Jendeak jakin dezan uste dugun baino emakume idazle on gehiago dagoela. Agota Kristof horietako bat da niretako.

Eta laugarrena, besteak martxan jarri zituena, liburua lehenengo aldiz leitu nuenean, kristoren astindua eragin zidalako.

**- Zergatik?**

- Ikusi egin behar da kontatzen duena zelan kontatzen duen. Leitu egin behar horretarako...

**- Zer kontatzen du liburuak?**

- Oso gauza latzak. Eta asko. Baina oso modu injenuoan edo, mutiko bik kontatzen dute dena, bikiak dira, eta autoreak umeen pentsatzeko tankera erabili du kontrastea eta baita ipuinaren tonua bilatzeko.

**- Ipuinarena?**

- Bai, bai. Arin-arin leitzen da. Baina ez da umeentzako liburua, ezta hurrik ere. Oso ondo pa-

satzen da liburua leitzen. Lehen orriak momentu aproposean leituz gero, ezin laga gero. Seguru nago jende askoren gustukoa dela. Itzulpena ez dakit, baina liburua bai, liburua oso ona da.

**- Zer hizkuntzatatik itzuli duzu?**

- Frantsesetik. Berak halaxe idazten du, frantsesez; ez du hungarieraz idazten. Luze joko luke hori zergatik egiten ote duen azaltzeko ahaleginean hasteak.

**- Izan duzu hartuemanik autorearekin?**

- Ez. Ezin izaten da dena nahi den moduan egin eta.

**- Zenbat denbora eman duzu liburua itzultzen?**

- Neuk ere ez dakit. Batean hartu, hurrengoan laga, azkenean arrapataka eta zelanbait amaitzeko.

**- Zer metodo erabiltzen duzu lanean?**

- Behar bezalakoa seguru ezetz. Ikasten dihardut oraindik, eta modu desberdinak erabiltzen ditut. Baina hori bai, hasieran, liburua itzultzen hasi behar dudanean, 'misión imposible' baten aurrean nagoela pentsatzen dut. Gero, lana martxan duzunean, estuasun handiak pasatzen dituzu, baina handienak azken aldera beti. Metodoa izateko, baldintza hobeetan egin beharko genituzke itzulpenak gehienok.

**- Honen aurretik, Rafael Sánchez Ferlosioren "Alfanhuiren langintzak eta ibilerak" nobela euskaratu zenuen. Hura ere ez zen itzulpen erraza izango.**

- Orain artekoan, ez dut errazik ezagutu.

**- Nork aukeratzen ditu liburuak, zeuk ala argitaletxeak?**

- Ez da berdina izan denetan. 'Koaderno Handia'ren kasuan, alde bietatik batera eman zen. Nik komentario bat egin, Alberdaniakoek egiteko esan eta nik egin.

**- Zelan hasi zinen itzulpen-lanetan?**

- Pentsatu egin beharko nuke zer esan. Ia nahi barik. Gustuko gauzak ditut literatura eta hizkuntzak. Niretako, mundu magikoak dira. Eskolak emateari laga eta polikipoliki zer edo zer egin dut.

**- Zer harrera izan dute zure itzulpenek?**

Ezin dizut esan, ez dakit. Hau, 'Koaderno Handia', bestea baino errazagoa da leitzeko, jende gehiagoren gustukoa izan daiteke. Gehiago saldu beharko litzateke.

## *"Agota Kristof-ek, modu polit-politean jakin du guri bere inguruko eta barruko berri ematen"*

**- Orain zer lan daukazu esku artean?**

- Egunerokoaz aparte, ezer ez. Asmoak bakarrik. Baina horiek martxan jartzeko eguna ere ailegatuko da noizbaitean. Gauza bat daukat garbi, asko ikasi behar dudala, asko daukat ikasteko.


BILTOKI

dekorazioa
ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK
ETA GAZTE ESTILOKOAK.
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK...
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
**SAN MARTIN PLAZA. Tfnoa: 76 43 51**

elektragailuak
MERKATUKO MARKARIK ONENAK
**BARRENKALEA, 6 eta 20. Tfnoa: 76 04 71**

ikus entzunezkoak
Banatzaile ofiziala
SONY PHILIPS
SAMSUNG PIONEER

sukalde eta bainuak
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA.
**SAN PEDRO PLAZA Z/G. Tfnoa: 76 34 00**

Gabon zoriontsuak izan ditzazula opa dizugu eta urte berri on!



## Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran bildu ziren uztailaren 4an, orain dela 127 urte, 1870. urtean, egin zuten moduan. Victoriano Gallastegi alkateak harrera egin zien udaletxeko arkupeetan Esther Larrañaga Batzar Nagusietako presidenteari eta Roman Sudupe diputatu nagusiari. Behin Udaletxeko Pleno Aretoan, Musika Eskolako Kamara taldeak, Peñaflorida kontearen "Adiyo Probintziya" zortzikoa eskaini zien Gipuzkoako batzarkide eta diputatuei eta Bergarako udaleko gobernu taldeko zinegotziei. Ondoren, Victoriano Gallastegi alkateak eta Esther Larrañaga batzarretako buruak berba egin zuten eta jarraian Batzar Nagusietako ohiko Plenoa izan zen.

## ESAN ZUTEN...



**FELICITAS CARTOLINI**
"Limako enbaxada hartzeak Peruk bizi duen egoera jakitera emateko balio izan du"
**NESTOR CERPAREN AMA**



**JESUS JAUREGI**
"Herrirako gauza zenez oso harrera ona izan zuen Gorlak. Eskatutako guztia ematen ziguten"
**GORLA ELKARTEKO SORTZAILEETAKO BAT**



**BITTOR RODRIGUEZ**
"Kalitate oneko proteinak eman behar zaizkie zaharrei, arraultza zuringoa adibidez"
**DIETISTA**



**Herritar ugari bildu ziren San Martin plazan Miguel Angel Blancoren heriotzagatik protesta egiteko.**

## Miguel Angel Blancoren heriotzaren kontra

Uztailaren 7an mila bat herritar bildu ziren udaletxe aurrean, Miguel Angel Blanco ETAk uztailaren 5ean hil zuen PPko Ermuako zinegotziaren aldeko kontzentrazio isilean. Bertan, Victoriano Gallastegi alkatea eta gobernu taldeko zinegotziak ere bildu ziren ordu betez. Kontzentrazioa hasi aurretik, ez ohiko Plenoa izan zen. Udalbatzak Euskal Autonomi Elkarteko udaletxe guztietan eta lurralde historikoetako batzar nagusietan aurkeztutako mozioa eta Ajuria Eneako Mahaiak kaleratutako agiriarekin bat egitea onartu zuen aho batez. HBko zinegotziak ez zuten Plenoan parte hartu, hau lan orduetan izan zelako.

*Urte berri zoriontsua izan dezazuela!!*

**Boni Laskurain ☎ 76 47 40**

*ERLOJUDENDA*
**AINHOA**
*BITXITEGIA*

## MOTZEAN

**JOSE MIGUEL GAZTELU ATXILOTUA**
Ortega Lara, Arrasateko industria pabiloi bateko zulo batean bahituta zeukan ETA-ko komandoko kide izatearen akusaziopean atxilotu zuten Jose Migel Gaztelu bergararra uztailaren 1ean, espetxeetako funtzionarioa aske laga zuten egunean. Jose Migel Gaztelu, Bolu kaleko bere etxean lotan zegoen gauerdiko laurak aldera Guardia Zibila etxeko atea bota eta atxilotzera sartu zenean. Atxiloketa legez kanpokoa izan zela salatu zuen bere emazteak eta protesta ekitaldiak izan ziren atxiloketaren kontra.

**KANTINA ZABALIK**
Gorlako Belatz kantina berria uztailaren 17an zabaldu zuten, tramiteak zirela eta hilabeteetan zabaltzeke egon ondoren.

**HERRITARREN FOROAK**
Otsailetik lanean jardun zuen ideologia eta iritzi ezberdineko bergararrez osatutako herritarren foroak egindako lanaren balorazioa egin zuen uztailean. Kale istiluak eta euskal presoak izan zituzten hizpide.

**ARLOTEAK TXAPELDUN**
Arloteak taldeak irabazi zuen Ipintzako futbol txapelketa, finalean penaltietan, Bildurbarek Opel/Lam taldea menderatu ostean.




## Jarduneko batzar orokorra

Jardunek urteko batzar orokorra egin zuen uztailean. Urtean egindakoaren balorazioa egin, hurrengo urterako asmoen berri eman eta aurrekontuak onartu ostean, egoitza berria eta kafe antzokiari buruz hitz

## Presoak Euskal Herrira ekartzeko ekimena




"Bergarako presoak Euskal Herrira" taldeak presoen eskubideak errespetatzea eskatzeko azken hilabeteetan egindako lanaren berri eman zuten uztailean. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eta kondenaren hiru laurdenak beteta dituzten presoak eta gaisotasun sendaezinak dituztenak aske lagatzea aldarrikatu zuten.

## PROTAGONISTAK



**MANU MUNIATEGI**
31 urteko pintore bergararrak Futbol Profesionaleko Ligaren Fundazioak deitutako margo lehiaketako lehen saria eskuratu zuen uztailean, *Triptico rojo* izenburuko koadroarengatik. Bi milioi pezeta jaso zituen.

**JOSE LUIS FEO**
Pol-Pol Argazki taldeko 35 urteko kideak Murgia eta Orduñako argazki rallyak irabazi zituen. Lehenengoan 52 argazkilarik hartu zuten parte eta bigarrenean 130 lagunek.





**ENRIKE NIETO**
Bergararra, 32 urte. BKEko futbol talde nagusiko entrenatzaile izateko aukeratu zuten. Bergarako jokalari eta talde gazteen entrenatzaile izandakoa.

Lurrindegia
Edertze aretoa
Ibargarai, 10 Tf. 76 00 85
alga
Gabon zoriontsuak opa dizkizugu.

# Beste urte bat alperrik

*Beste urte bat pasa da, ez da ezer konpondu, urte zahar egunean bi pertsona izango dira bahituta, preso dauden lagunak Euskal Herritik urrun izango dira, Euskal Herriko kaleak sutan... Euskal Herria Askatu"*, horrela bukatzen nuen iaz BERRIGARAn 1996 urteari buruzko ikuspuntua. Beste urte bat joan da eta antzera edo okerrago gaude, preso gehiago, hildako gehiago eta esperantza gutxiago nere baitan.

Euskal Herria askatu nahi dugunok ez daukagu erraza, ELAk aurten esaten du "Estatua hilda dago" eta negoziaketa urrun ikusten da. Francok ondo lotuta utzi zuen Espainiaren Handitasun eta Batasuna, nazionalismo espainiarrak soilik du lekua. PPk elkarrizketaren bideari ate guztiak itxi dizkio. Perez Esquivel Nobel saridunaren ahaleginei ezetz esan zien eta gero, alde batetik Santo Domingoko bitartekaritza eta, bestetik HBko Mahai Nazionaleko 23 kideak kartzelan sartu dituzte. Beraz, ez dago pozik egoteko motiborik. Konparaketak ez dira gehienetan zuzenak izaten, baina Sinn Feineko ordezkariei Downing Streetreko atea zabaldu zaien bitartean, Jose Luis Elkoro eta lagunak kartzelara eraman dituzte.

Euskal LAB ELA aurten ere batera aritu da, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz eta HBko Mahai Nazionala kaiolan sartu zutenean, EHNE eta Elkarrirekin batera gero egin ez zen, baina mugimendu handia sortu zuen manifestazioa antolatu zuen. Amets gozo horretatik Irunen Casoren hilketak esnatu gintuen eta berriro errealitate gordinera itzuli ginen. Suarekin dabilena erre egin daiteke eta suak askotan erre du euskaldunok batzeko askok dugun itxaropena.

Aurten ez da bahiturik izango Gabonetan, baina presoek urrun segiko dute. Lehen txantaiaren aurrean ez zutela amore emango zioten, baina bahiturik gabe ez du PPk presoak ekartzeko asmorik. Ortega Lararen alde ez zuen ezer egin, polizia lanean jarri besterik ez. Hauek topatu eta askatu zuten, hemendik gertu gainera. Gero Blanco Ermuko zinegotzia bahitu zuen ETAk gauza bera eskatuz, baina honek ez zuen suerte bera izan eta bi eguneko epea bete zenean hil egin zuen. Ondoren, ETAren aurka jende asko mugitu zen, baina duela urte batzuk Ordoñezen hilketarekin hasitako bideari eutsio dio eta ez dirudi etsiko duenik. Kartzelan preso hil dira, *Txo* Mahai Nazionaleko kideak bere buruaz beste egin zuen kartzelan sartu behar zutenean, Basajaun ETAko kidea hilik azaldu zen, Goardia Zibilak beste bi hil zituen Bilbon...

Justiziarik ez dago, nahi duten eran erabiltzen dute legea. Presoekin ez da legea betetzen, Mikel Otegiren epaiketako erabakia ez zuten onartu, Itoizeko urtegiko obrak ez dira gelditu... Bost axola Epaitegi Gorenaren erabakia eta alperrik botatako hainbat milioi peseta. Ez da normala bi ertzain hil zituen Otegi libre izatea, baina hori izan zen epaiketan juraduak erabakitakoa. Kasu honetan ez omen zuen balio eta berriro harrapatzeko agindu zuten. Juraduak 60 urteko zigorra ezarri balio (hori ere ez litzateke justua, gertatu zena gertatu zelarik) ez zen berdina gertatuko. Hilketak beroaldi baten ondorio izan zirenez, bi aukeren artean libre utzi zuten.

Justizia euskal independentismoaren aurka modurik gogorrenean aplikatzen dute. Aurten intsumiso izateagatik epaitu eta zigortu naute, noski interpretearekin, baina gazteleraz izan zen epaiketa. Epaile eta fiskalak kanpokoak dira. Bestalde, milioi bat pesetako multa jarri diote Bergarako abokatu bati, Iñigo Elkorori, defendituak nahi zuen bezala epaiketa euskaraz egitea posible ez zenez, epaiketatik joateagatik. Justizia injustoa daukagu.

Hainbat komeria gertatzen dira urtean zehar Euskal Herrian, baina komedia baino gehiago tragedia da gurea. Beti tokatu zaigu menperatu papera, baina euskal labela daukagu eta imajinazio handiz eutsi beharko. Euskal Herria Askatu, mesedez, lehertu egingo gara bestela. ■



JON ALTUNA

**ELKAR** fotokopiak
Arruriaga 1 behea. Tf. eta faxa 76 58 16.

**Fotokopiak** **Planoen kopiak**
Plastifikazioak Kautxozko zigiluak
**Fax zerbitzua** **ETA KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN**
Enkuadernazioak **DIAPOSITIBETATIK NAHIZ NEGATIBOETATIK**

# Automobil aseguruak

**Mapfre abantailak**




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

Zure zerbitzura!!

**Mota guztietako instalazioak**



☎ 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

# *Erregeek Bergaa*
# *Badakizuz*



**Bergara Piel**
Espoloia 6, 76 20 70



**Garnish**
San Pedro 12, 76 03 57




**Egizabal**
Bidekurutzeta 13, 76 12 28

VIA
DIGITAL
Telebista digitala
**Eman izena hemen**

**Zaiazko**
Telesforo Aranzadi, 76 10 66

**Aisor**
Bidekurutzeta 7, 76 04 10





**Zubikua**
Barrenkalea 24, 76 10 16



**Jolas**
Barrenkalea 27, 76 46 48



**Janden**
Irizar 1, 76 20 03

**Mar**
Bidel

**llika**
arrenka

*an erosten dituzte opariak.*

# *ze dendetan?*



**Marcó**
Bidekurutzeta 44, 76 05 54




**Etxeberria**
Bidekurutzeta 16, 76 23 94



**Lazkano**
Barrenkalea 15-17, 76 25 03



**Igarza**
Irala 5, 76 24 88



**Maya**
Irizar 2 behea, 76 09 75



**i2**
Ibargarai 45, 76 41 63



**ilika**
rrenkalea 18, 76 34 08



**Cristina**
Arruriaga z/g, 76 03 04

# TELAETXE S.A.

**SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA ETA KORTINEN ERAKUSKETA BERRIA**

## OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

**Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)**
**Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA**



Aukera haundia oihal eta pusketan, metroka zein pisura.
EDREDOI NORDIKOAK.
TAPIZEN ERAKUSKETA: Zetak, sukalderako eta saloirako kortinak, toailak, yakareak, izarak, tapizak, e.a...
OHE-ESTALKIAK, EDREDOIAK ETA KORTINAK EGITEN DITUGU, KONTSULTATU.
FABRIKAKO PREZIOAN!!

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30
Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

**Urte berri zoriontsua izan dezazuela!**

# Ikusentzuteko zabortegia

Emakume baten hilketak, bere senar ohiaren tratu txarrak telebistaz salatu ondoren, hausnarketa egiteko parada ematen digu: emakumeen ondoeza aztertu eta, nola ez, telebistaren papera kritikatu eta salatu.
Azken finean, morboaren pean kaxa tontuak eskaintzen diguna ikusentzuteko zaborra besterik ez da azkenaldi honetan. Nahiz eta Pepe Navarrok gidatutako saioa desagertu -benetako arrazoiek ilunpean darraite-, inork ez dezala pentsatu telebistak bere zikinkeria guztiak garbitu dituenik.
Norbaitek esan du emakume madarikatuaren hilketak andaluziarren artean arabeen eragin sakona erakusten duela -zortzi menderen itzal eta heredentzia hiltzaile eta susmagarria (hamaika gauza entzuteko jaio ginen!)-. Baina ez dezagun ahaztu betidanik izan garela horrelakoak egiteko gauza. Ez dezagun bilatu errudunik kanpoan.
Hemen, Iparraldearen ekialdean, noizbait jakin dugu antzerako tratu txarrak ere izan direla. Ez bakarrik hezkuntza edota kultura gutxiko jendearen artean. Hau errealitatea izkutatzeko topiko bat besterik ez da.
Errudunak, erasotzaileak, adin eta mota guztietakoak dira. Beste kontu bat da zeintzuk ateratzen diren medioetan. Euskal Herrian, orain dela urte gutxi jakin genuen nola emakume batek salatu zuen bere senarra, alderdi bateko goreneko kargua, mehatxu eta tratu txarrak jasan ondoren.
Bigarrenik, salagarria da telebistek nola erabiltzen dituzten herritarren sentimendu eta zorigaitzak.
Dena den, aitortu beharko genuke asko prest daudela bere bizitzaren miseria guztiak kaleratzeko inolako lotsarik gabe. Agerraldi lizunak benetan, eta fruitu eskasak kasu onenean.
Edonola ere, zoritxarrez ez zaizkio falta ikuslegoari tankera honetako programak.
Gauza bat da etxeko trapu zikinak etxean garbitzea eta beste bat telebistako plato batera hurbiltzea gure mamitasun guztiak, mugarik gabe, kontatzeko.
Demagun kasu batzuetan etsipen pertsonalaren ondorio dela, agian ia inkonstzienteki, emaitzak neurtu gabe.
Eta gainontzekoetan? Erakuskeria hutsa. Telebistara jo behar dute beraien nortasuna berrindartzeko, izan ere, hain gauza gutxi sentitzen dira! Hiru minutuko famaren truke, bilutsik gelditzeko prest daude: sentimenduak, ondoezak, gorrotoak... dena azaleratzen dute kamara aurrean.
Espektakulua, eta hitza azpimarratzen dut, nazkagarria izaten da. Ez dakit, akaso norbaitek bere traumak sendatuko ditu publikoki kontatuz, baina ez zait iruditzen konponbide aproposena denik. Aldiz, badirudi ondorioz, gaisotasun animikoak sakontzen dituztela.
Etxean jasandako tratu txarren kasu zehatzari lotuta, bidea beste bat izan behar da derrigorrez. Erasoak jasaten dituztenek epailengana jo beharko lukete eta, premia izanez gero, legea aldatu, errugabearen segurtasun baldintzak bermatzeko. Egia da arlo honetan tratu txarrek eta erasoa egiten duenaren izaera eta pentsamoldeak zerikusi haundia dutela, hain zuzen ere, emakumea gutxiesten duena. Beraz, hezkuntzaren papera indartzea oinarrizkoa da honelako erasoak ekiditeko. Azken finean, errespetuari buruz hitz egiten ari gara. Eta kontua errespetua galtzea bada, gal diezaiogun matxismo krudel eta higuingarriari.
Telebistarekin zela jokatu askoz errazagoa da, itzali eta kitto. ■



IÑIGO URRUTIA

Larrañaga
BANATZAILEA
Zorionak!
Txanpaina, Gabonetako saskiak, esnea, ura, sagardoa, Errioxako ardoa, garagardoa...
Martoko, 32 behea
BERGARA
Telefonoa, 76 45 94
Mobila, 907 - 65 76 34



San Martin plazan herritar ugari bildu zen ongi-etorri bazkarian.

## Iñaki Ibabe aske, gartzelan 17 urte egon ondoren

Iñaki Ibabe, 17 urte estatuko hainbat gartzelatan egona, kalera irten zen abuztuaren 14ean Langraitzeko espetxetik. Ibaberi ongi-etorria egin zitzaion Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta eta Langraitzen bertan egindako ekitaldiaren ondoren, Bergaran herri bazkaria antolatu zen San Martin plazan, Seminarioko arkupetan. Bertan herritar ugarik hartu zuen parte. Berak aitortu zuen moduan *"uste baino hobea"* izan zen eguneroko bizitza normaalera itzulera. Ibabe askatu zuten egunean, pintada ugari agertu ziren kalean

## ESAN ZUTEN...



**AXEN GARITANO**
"Txoriak zaintzeko egoitza hau Euskadin dagoen bakarra da, nik dakidala behintzat"
**ELURRA TXAKURTEGIKOA**



**LUIS UGALDE**
"Latinamerikako herrialde askok jesuitak deabruak bagina bezala ikusi nahi gaitu"
**JESUITA**



**ROMAN AGIRREZABAL**
" Orain dela bost urte jatetxea zabaldu genuenetik loteriako zenbaki bera hartu dugu astero"
**TXURINGO JATETXEKOA**

## Loteria Bergarara

Abuztuko 9ko Loteria Nazionalaren zozketako bigarren saria, 200 milioi pezeta, Bergarara etorri zen. 52.726 zenbakiaren bi serie oso Osintxuko Txuringo jatetxean eta Peñalban saldu ziren. Sariaren zatirik haundiena osintxuarren artean banatu bazen ere, Oñati, Soraluze edota Bergarara ere etorri zen zerbait. Gehienei bi milioi edo milioi bat pezeta tokatu zit-





## Obretan Udal Pilotalekuan

Abuztuan Udal Pilotalekuko errebotea atzeratu eta frontiseko eta ezkerreko paretak konpondu eta berriz pintatzeko lanetan jardun zuten. Lanok egiteko 10 milioi pezeta gastatu zituen Udalak. Abuztuan hezetasun haundia egin zuenez arazoak izan ziren pintura behar zen moduan sikatzeko.

ESPOLON
School of English

URTARRILETIK AURRERA INGELES IKASTARO TRINKOAK

Maila guztiak, 6 urtetik aurrera

CAMBRIDGEKO AZTERKETETARAKO PRESTAKUNTZA BEREZIA
Goizez eta arratsaldez

Informazioa: Ibargarai 31 Barruko plaza Tf eta F 76 03 53.

## MOTZEAN

**LURRIKARA**
Abuztuaren 30ean, goizaldeko seiak inguruan, lurrikaratxo batek sortutako zarata ozen batek hainbat herritar esnatu zituen. Ritcher eskalan 3.5 gradutako lurrikara izan zen, baina batzuk ez ziren enteratu ere egin.

**BILBOTAR BATEN GORPUA ERREKAN**
Abuztuaren 14ko goizean gizonezko baten gorpua aurkitu zuten Deba ibaian, Agirrebeñako zubi azpian. Lorenzo Urriolabeitia Iurrebaso zen 31 urteko bilbotaraen izena. Gorpua inork erreklamatu ez zuenez, Bergarako kanposantuan lurperatu zuten.

**ANGIOLILLO**
Abuztuaren 20an bete ziren 100 urte Michelle Angiolillo, Canovas del Castillo Espainiako gobernu burua hil zuen anarkista, Bergarako gartzelan garrote bilez hil zutela.

**TENPERATURA ALTUAK**
Normalean baino tenperatura altuagoak izan genituen aurtengo abuztuan. Batazbestekoa 22,5 gradutakoa izan zen, baina egun batzuetan, abuztuaren 14 eta 23an, 36 gradutaraino heldu zen termometroa. Halere, ez genuen hain eguraldi ona izan, hezetasun haundia egin baitzuen eta abuztuko 15 egunetan euria egin baitzuen.



## Superra azoka plazan

Oxirondo azokan super merkatua jartzeko lanak hasi zituzten abuztuan. Beheko solairuan, astebukaeretako saltzaileak eta baserritarrak egoten diren tokian, kokatu dute superra eta abuztuan sapaia eginda zuten dagoeneko. Unialco Super BM taldeak, superra jarriko duen taldeak, eta Udalak 25 urterako kontratua sinatu zuten eta 10 milioi pezeta jaso zituen Udalak.

## Kotxe zaharren rallya

Bilboko Hiria Rallyak Bergaran parada egin zuen abuztuaren 14ko gauerdian. 30 urte baino gehiagoko kotxeek herritarren ikusmina sortu zuten, abuztu erdialdean Bergaran jende asko ez bazegoen ere, San Martin plazara herritar ugari hurbildu baitzen. Bergarara 25 bat kotxe zahar heldu ziren eta udal agintariek harrera egin zieten Udaletxean.






## Inoiz baino turista gehiago

Turismo Bulegoan inoiz baino kontsulta gehiago jaso ziren aurtengo abuztuan. Uda osoan zehar 1.560 kontsulta jaso ziren, iaz baino 305 gehiago. Horietatik 530 bergararrek egin zituzten eta gainontzeko 1.030 kanpotrik etorritakoek. Ekainean 98 kontsulta jaso ziren, uztailean 664 eta abuztuan 798. Katalanak izan ziren gehien bisitatu gintuzten kanpotarrak. Europa eta munduko beste herrialde batzuetatik etorritakoen kopurua, bestalde, bikoiztu egin zen iaztik hona. Turistek *"herriko etxeak ondo zainduta zeudela"* esaten zuten ondoren egindako inkesta batean.

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak

GASTON Y DANIELA

IREKI BERRIA
Kruz Gallastegi 3an! ☎ 76 07 37

Eta *orain*
gazteendako, umeendako
eta ume jaioberriendako
*altzariak eta dekorazioa*

GABON ZORIONTSUAK!



## Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak bildumaren lehen liburua kalean

"Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" izenburuko bildumaren lehen atala, "Ehuna, linua eta artilea" izenburukoa, aurkeztu zen irailaren 12an Udaletxeko pleno aretoan. Jaione Isazelaiak idatzitako liburua Bergarako Udalak eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak 1993an sinatutako hitzarmenaren lehen fruitua da. Bildumak lau atal izango ditu eta lexiko berezia jasoko duten edo galtzear dauden langintza zaharrei buruzko liburuak izango dira. Liburua salgai dago 2.200 pezetan. Liburua aurkeztearekin batera, Oiartzungo Goruzaleak elkarteak prestatutako harigintzari buruzko erakusketa antolatu zen Udaletxean.

## ESAN ZUTEN...



**BINGEN DE PEDRO**
"Beste publiko mota bat da tabernakoa, arte aretoak hotzagoak dira"
**PINTOREA**



**AGUSTIN IÑARRA**
"Jendea gero eta beranduago irtetzen da kalera eta gainera azkenaldian giroa asko jeitsi da"
**TABERNARIA**



**JAIONE ISAZELAIA**
"Mende hasieran linua ereiteari laga egin zioten bailaran eta handik gutxira ehuleak desagertu egin ziren"
**IRAKASLEA**

## Pilotaleku berriztua

Pare bat hilabetez itxita egon ondoren, San Martin jaietan berriz ere zabaldu zen Udal Pilotaleku berriztua. Kantxa luzatzeko errebotea atzeratu egin zen, frontisa eta ezker pareta berdindu eta berriz ere pintatu egin ziren eta Bergarako Udaleko harmarria eta Atano III.a pilotari haundia izandakoaren irudia jarri zen errebotean.





## Meningitisaren kontrako txertoa

18 hilabeteko haurretatik hasi eta 21 urte arteko gazteei bideratutako meningitisaren kontrako txertoa ematen hasi ziren irailaren 17an Bergaran. Anbulatorioan eta eskoletan eman zen txertoa.

Amaia

Lurrindegia, opariak eta edertze aretoa

académie scientifique de beauté. Paris

GUERLAIN PARIS

BOURJOIS

...eta beste asko

Barrenkalea 25 Tf. 76 16 97

Gabon zoriontsuak igaro!

## MOTZEAN

### SAN MARTIN JAI JENDETSUAK

Astelehenean, San Martin bezperan eta zapatuan batez ere jende asko ibili zen kalean San Martin jaietan. Egitarau zabal eta era guztietako ekitaldiz osatutakoa prestatu zuen Udalak. Zerbait nabarmentzekotan haurren danborrada, aurten San Martin Agirreren martirioaren 400. urteurrena dela eta, berezia antolatu baitzen. Bedelkarreko harakinen afarian ere jende asko bildu zen... Barazki, lora, fruita eta gazten ferian ez hainbeste, zapatu goizean eguraldi eskasa egin baitzuen.



### UDALAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK EUSKARAZ

Herritarrek Udaleko idatziak euskara hutsez jaso ditzaten bultzatzeko kanpaina aurkeztu zen Udaletxean irailaren 18an. Kanpaina 16 urtetik 22 urtekoei bideratu zitzaien eta gutun bat bidali zitzaien, idazkiak euskara hutsez jaso nahi dituzten galdetzeko. Une honetan Bergarako Udalak 3.300 herritarri bidaltzen dizkie idatziak euskara hutsez.



### Deskarga erreka bideratzeko hitzarmena

Deskarga errekak Deba ibaiarekin bat egiten duen zatian erreka bideratzeko hitzarmena sinatu zuten irailaren 25ean Victoriano Gallastegi alkateak eta Jose Antonio Maturana Garraio eta Herrilan sailburuak. 470 metroko erreka zatia bideratuko da. San Antonioko ermita eta inguruko beste etxe batzuk bota egingo dira. Lanen aurrekontua 263 milioi pezetakoa da eta Jaurlaritzak eta Diputazioak ordainduko dute.

### Kamioia irauli



Mañariako Artetxe Gruak enpresako kamioi-grua bat Elorregiko autobus markersina aurrean eraman eta ondoko ortuetara jausi zen, erreka ertzean geratuz. Istripua ikusgarria izan zen, baina bertan zihoazen bi gazteek ez zuten zauri larririk jasan.

## PROTAGONISTAK



**J. M. GONZALEZ BASTIDA**
Irailaren 25ean hil zen 89 urte zituela, konpositore bergararra. Donostiako Easo abesbatzako eta Gasteiz, Irun eta Hernaniko bandetako zuzendari izan zen.

**EDUARDO MURUAMENDIARAZ**
Dantzari bergararra, Donostiako Zinemaldian agintari eta zinegileei egin zitzaizkien harreretan aurreskulari ofiziala izan zen. Besteak beste, Michael Douglasi eskaini zion aurreskua.





**XABIER ZUBIZARRETA**
14 urtetan Bergaran apaiz lanetan jardun ondoren, Eibarko San Pio X.aren parrokian hasi zen lanean irailean. Hilaren 6an despedida afaria antolatu zioten eliztarrek.

Gabon egun zoriontsuak izan ditzazuela!!

Bidekurutzeta, 6
Tfnoak: 76 10 25

Gracian
Usaindegia - Mertzeria

Urte berri on!!



# Asier Altuna

*Asier Altuna "Kixi"k Telmo Esnal zarauztarrarekin batera zuzendutako "Txotx" laburmetraia saritu zuten azaroaren azkenetan Bilboko Jaialdian.*

Sagardotegi batean girotutako filme honek kritika oso onak jaso ditu; egileak apostuen inguruko beste istorio bat lantzen ari dira orain.

**- Zelan sortu zen "Txotx" egiteko aukera?**

- Telmorekin batera filme askotan aritu naiz lanean eta sagardotegi batean geundela, makinatzen hasi ginen, ideia txoro samarrekin. Iaz, udan, gidoia idatzi eta gure proiektua Euskal Mediari aurkeztu ondoren, 2 milioi pezeta agindu ziguten.

**- Errodaia egiteko sagardotegia topatzea nahiko kostatu ei zitzaizuen...**

- Sagardotegi zahar bat nahi genuen eta bailara galdu batean kokatutakoa bazen, askoz hobeto. Gipuzkoa osoko ia sagardotegi guztiak bisitatu genituen, baina gehienak berriztuta daude gaur egun. Azkenean, Aieteko Munto baserrian lau urtez itxita izan den sagardotegi bat topatu genuen. Gainera, Isidro bertako jabea erabat prest zegoen guri baserria lagatzeko. Eta aktore guztiak laguntzeko prest azaldu ziren, Mikel Laskurain tartean.

**- Zenbat denbora behar izan zenuten laburmetraia amaitzeko?**

- Errodaia astebetean egin genuen, nahiz eta aurretik laburmetraia gertatzeak izugarrizko lana eman zigun. Errodatu ondoren, Madrilen muntaia egin genuen, baina musikarekin arazo batzuk izan genituen. Hasiera batean, Bingen Mendizabalek egin behar zuen musika baina beste konpromezu batzuk zeuzkala eta ezin izan genuen bere partaidetza lortu. Prozesu guztia nahiko atzeratu zen, gu biok beste proiektu batzuekin lanean hasita ginen eta. Azkenik, udan musika grabatu eta soinua

sartu genuen.

**- Arazoren bat izan da zuzendaritza elkarrekin egiteagatik?**

- Ez, ez da batere zaila izan kortoa bion artean zuzentzea. Oso errodaia atsegina izan da, barre asko egin dugu.

**- Anekdotarik?**

- Mikel Laboa Isidro zenaren (laburmetraia estreinatu baino lehen hil zen jabea) laguna zen eta askotan etortzen zen errodaia ikustera. Behin ea agertu nahi zuen galdetu genion eta berak baietz. Baina justu egun horretan nahiko nahastu ginen eta azkenean plano barik geratu zen Laboa...

**- Publiko eta kritikaren harrera ezin hobea izan da...**

- Lehenbizi 'Perdita Durango' filmearen estreinuan aurkeztu zen Bilbon eta ondoren Donostiako Zine Fantastiko eta Beldurrezkoaren Jaialdian. Donostian ikusleek emandako bigarren saria jaso genuen eta, azaroan, Bilboko Jaialdian euskal kortorik onenaren saria eman ziguten. Egia esan, publikoaren aldetik oso harrera ona izan dugu.

**- Ez duzue sagardotegien ikuspegi atseginegia ematen...**

- Sagardotegi horretan giza haragia ematearena anekdota bat da. Horren azpitik familiaren istorioa dago, heredentzia kontuak. Nahiko istorio dramatikoa da eta umore beltzez aurkeztu dugu.

**- Beste proiekturik?**

- Bernardo Atxagaren ipuin batean oinarritutako korto bat egin nahi genuen, baina egile eskubideak beste norbaiti emanda zituen. Herri kiroletako apostuen inguruko munduari buruzko istorioa landu nahi dugu.

**- Euskal Herriko ohituretan errotutako istorioak dira zuenak...**

- (Barre) Korto bat egiteko nagusiki anekdotak behar dira eta, oraingoz behintzat, hor topatu ditugu. Azken batean pertsonaia on bat izanda gauza interesgarriak egin daitezke. Idi-probetan idiek irrist ez egiteko bada idien kaka biltzeaz arduratzen den pertsona bat. Horrelako pertsonaiak oso aberasgarriak dira.

**- Zein da laburmetraien irtenbidea?**

- Zine aretoetara heltzeko ez dago banaketarik, zine enpresarien artean ez dago kortoak programatzeko ohiturarik, azken batean iragarritako filmeari korto bat gehitzeagatik ez delako ikusle gehiago erakartzen. Diru arazoa da tartean, kortoen garraioan dirua gastatzen baita. Gure laburmetraia Canal Plus kateari saldu diogu eta ETBk ere erosiko duen itxaropena daukagu. Sariren bat jasoz gero, badago aukera inbertitutakoa berreskuratzeko.

***"Laburmetraia bat egiteko nagusiki anekdotak eta pertsonaia on bat behar dira"***

**URTE BERRI ON!**

*Ateak eta zokaloak, horma armairuak, sarrailak eta manilak, koadroen enmarkazioa, era guztietako moldurak, apalak, kajoiak...*

ARDATZA
Brikolaketa

*Irudimenarekin, eskulanak egiteko kutxak, kajonerak, bandejak, pertxeroak, komuneko altzariak... margotu ditzakezu.*

# Zabalik dago Bergarako Super BM

## 700 metro karratuko supermerkatua Oxirondo azokan

**Eguastenean zabaldu zituen ateak Oxirondo udal azokako beheko solairuan jarri den Super BM supermerkatuak.**

Salmentarako 700 metro karratu dituen **superrak 10 sail ditu: harategia, urdaitegia, fruteria, arraindegia, izoztuen saila, janarien saila, lurrindegia, usaindegia, okindegia eta edarien saila.** Bestalde, erosketak egitera bertara joan barik, **eskatutakoa etxera eramateko zerbitzua ere eskaintzen du Super BMk.**

### ZERBITZUAREN KALITATEA

Super BM taldeko supermerkatu guztien adierazgarri nagusia bezeroei eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatea da, hiriguneen erdialdean dauden establezimenduetan erostea erosoago eta azkarrago egiten baita. **Super BMko dendek dekorazio alaia eta bizia dute, bezeroak ingurune atsegina merezi duelako.**
Bestalde, Super BMk sustraiak ditu herrian; **bertako kalitaterik oneneko produktuak bultzatzen dira**.

### GARANTIAKO PRODUKTUAK

Super BMko elikagai, edari, drogeria e.a. alorreko produktuak **merkatuan arrakastarik haundiena duten marketakoak dira. Kalitate kontrastatua daukaten eta erabat ezagunak diren produktuak dira.** Super BMko bezeroak erosketak egitera bertara doazenean garantiarik onena eskaintzen dieten produktuak erosten dituzte, konfidantza osoko produktuak. Gainera, **IFA markako produktuak ere badaude** Super BMn, hau da, bezeroak prezio merkeagoan eros ditzan fabrikatzaile onenetakoek abalatutako produktuak.

### PRODUKTU BEREZIAK

Super BMk produktu aukera haundia eskaintzen du prezio ezin hobean. **Super BMk bezeroarentzan bereizten du janari, edari eta drogeriako aukerarik konpletoena.** Gainera bi baldintza betetzen dituzte: **prezio baxua eta Super BMk exijitzen duen kalitatea** edukitzea. Aukeratutako produktu horiek, garantia osoa eman eta oso prezio ekonomikoa eskaintzen duten fabrikatzaileenak dira.

### BERE JENDEAREKIN KONPROMEZUA

**Super BMk bere historian zehar, kultur, gizarte eta kirol ekintzak aurrera eramaten lagundu izan du**. Laguntza horren bitartez, bertako elkarte eta pertsonek hainbat ekintza aurrera eraman ahal izan dute. Besteak beste, honako hauek babestu ditu Super BMk: **Lazkao Txikiri omenaldia, Manaslu eta Cho-Oyu-Lotshe 96 espedizioak, Miguel Indurain klasikoa, Korrika...**

**Super merkatu berriak 10 sail ditu: harategia, urdaitegia, fruteria, arraindegia, izoztuen saila, janarien saila, lurrindegia, usaindegia, okindegia eta edarien saila.**






Super BM
GRUPO IFA





# Pozak eta tristurak

Pozak eta tristurak, urtero bezala, ekarri dizkio 1997ak gure kirolari. Hala izaten daki, baina aurten kirolari batzuei gauza biak bizitzea tokatu zaie urtea aurrera joan ahala geroz eta bizkorrago pasatzen den hamabi hilabeteko epean. Esan bestela Agustin Aranzabal futbolariari. Ia urte erdi darama abduktore edo adduktore ditxosozko haustura sendatu ezinda. Bitarte horretan, aldiz, sinatu du Errealean, gutxienez, hogeita hamar urte bete arte jarraitzea ziurtatzen dion kontratua. Exenplutzat hartu dute Donostia aldean bere klubarekiko jarrera. Clementeren deialdietatik kanpo laga du lesioak Frantziako Munduko Kopara joateko bezperatan, baina oraindik badauka denbora.

Eskuetako behatz puntekin ikutu zuen Aitor Elkorok pelotak banatzen duen txapelik handiena. Lau tantu falta izan zitzaizkion Arretxeri kendu eta buru gainera eramateko. Poz handia hartu zuen finalera helduaz dago batere aitzakiarik jartzerik bere txapelketari eta bere denboraldiari. Jose Mari Zezeagak ere zilarrezkoarekin konformatu behar bikotekako txapelketan. Adarragako azterketa ezin hobeto gainditu zuen Uberakoak Titin erabat aspertuz, baina Donostiako finalean Retegi eta Lasak, berak eta Eugik baino nota hobea atera zuten. Hilabete batzuk beranduago heldu zen Iruñean besoko lesio madarikatua, buruko min bat baino gehiago ekarri dizkion San Ferminetako banderila beltza.

Azkar ibili da Aitor Zabaleta. Espainiako mendi txapelketan nagusi izan da bere barketarekin. Bergarako kotxe piloto talde handiaren barruan berak merezi du aipamen berezia. Ez da gutxi.

Beste izen propio bat Antonio Merino atleta antzuolarrarena dugu. Behobia-Donostian bigarren egin zuen, baina aurreko neguan kross denboraldiona egina zen, baita udan pistan ere. Zortzi ordu lantokian pasatu ondoren, atletismoan horrelako maila lortzeak inork uste baino meritu handiagoa dauka. Ezin ahaztu beste antzuolar baten, Xabier Azkarateren, bigarren postua Gipuzkoako maratoi txapelketan.

Bergarako futbol talde nagusia lider dugu momentu honetan, baina erregionaleko lehen mailan, Antzuolaren multzo berean. Bata jaitsi eta bestea igo egin ziren iazko denboraldian. Ezin aitatzeke laga hain ondo aritu den igerilari taldea, gimnasia erritmikoa, karatekak -Jaime Martin eta Aitor Delariberete buru direla-, eta orduak sartu eta sartu ari diren beste hainbat talde, beti lanean. Azkenerako utzi dut Lokatza Txirrindulari Eskola. Kadeteak azpimarratuko nituzke, euren emaitza onengatik. Baina 1997ko gurpilek guztiok korritu beharreko itzuli handira eraman dute beste lagun bat. Lokatzak bizikleta artean emandako lehen pedalkadak berarenak izan ziren. Mutikoak haruntz eta honuntz ibiltzen denak ez du koloretako maillotik jantzten. Eskerrik asko eta betirarte, Portu. ■



JOSEBA LEZETA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

EGIN ZURE OPARIAK ETXEBERRIAN EROSIZ ETA PARTE HARTU 200.000 PTA ETA 100. 000 PTAKO EROSKETA-TXARTELEN ZOZKETAN

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!


Parte hartze haundia izan zen antolatutako ekitaldietan.

## Bergara eta Antzuolako jubilatu eta pentsiodunen hamabostaldia

"Erretiratu izatetik presente egotera" lemapean, Bergara eta Antzuolako jubilatuen kultur hamabostaldia izan zen urriaren 7tik 24ra bitartean. Eskulanen erakusketa, hitzaldiak, irteerak, bisita gidatuak, mahai inguruak eta bazkaria antolatu ziren besteak beste. Hasiera ekitaldian Luis Mari bandres Gizartekintzako diputatuak hartu zuen parte eta Imanol Sorondo eta Juan Antonio Pagola apaizek, Maria Teresa bazo soziologoak edota herriko gizarte, kultura eta industria alorretako ordezkariek eta alkateak hartu zuten parte hamabostaldian. Ekitaldi guztietan jende askok hartu zuen parte eta hamabostaldia oso arrakastatsua izan zen.

## ESAN ZUTEN...



**J. BERASATEGI**
"Europako merkatu bakarraren atarian, hemengo industria egoera kezkagarrian dago"
**URTEKO ENPRESA GIZONA. TTTKO BURUA**



**AITOR ARANBURU**
"Musika egitea ez da torniloak egitea; musika sentitu egin behar da"
**BATERIA-JOLEA**



**J. A. PAGOLA**
" Jubilatuak bizitza proiektu bat eratu eta jarrera positiboa izan behar du egoera berriaren aurrean"
**BIKARIO NAGUSIA**

## Eguneko zentrua zabalik

Alzheimerra edo zahartzaroko dementzia duten gaisoak egunez zaintzeko zerbitzua martxan jarri zen urriaren 1ean Jubilatuen egoitzan. Astelehenetik eguakitzera goizeko 10etatik 18:00ak arte zaintzen dituzte gaisoak. Gaur egun bi klinika laguntzaile daude 7 gaiso zaintzen. Zentrua Luis Mari Bandres diputatuak eta alkateak inauguratu zuten.





## Jatetxe gida

Deba Garaiko 100 jatetxeren errezetak, telefonoa, helbidea eta beste hainbat informazio jasotzen duen gida aurkeztu zuen urriaren 29an Debagunek, Deba Garaiko Euskara Elkarteen Elkargoak. 177 orriko liburua 500 pezetan jarri zen salgai.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:
kutxa fundazioa fundación

## MOTZEAN

**UDAL TASEK %2ko IGOERA**
Datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituen aho batez udalbatzak. Udal zergak, tasak eta prezio publikoak batazbeste %2 igoko dira datorren urtean.

**HBko MAHAI NAZIONALARI ELKARTASUNA**
HBko Mahai Nazionalaren epaiketaren kontra protestatzeko eta mahaikideei elkartasuna adierazteko, hainbat ekitaldi antolatu zituen Bergarako HBk. Bestalde, gizarteko alor guztietako hainbat herritarrek epaiketaren kontrako manifestua aurkeztu zuten eta 300dik gora herritarrek euren autoinkulpazioa aurkeztu zuten epaitegian.

**UNEDen IKASTURTE HASIERA**
Urriaren 31n eman zitzaion hasiera ofiziala UNEDeko ikasturteari. Ekitaldian UNEDeko Bergarako zuzendaria eta UNEDeko erretore orde nagusia bildu ziren udaleko eta diputazioko agintariekin batera.

**FERNANDO SASIAIN ASKE**
Fernando Sasiain, Ertzaintzak ETAko komando bateko kide izatearen akusaziopean urriaren 21ean atxilotutako gaztea, kargu barik aske laga zuten hiru egun geroago. Antxon bere anaiaren pisua arakatzen jardun zuten ertzainek, baina ez zuten bera aur-



## Jakionen aurkezpena

Jakion nekazaritzako produktuen transformazio zentrua inauguratu zen Leintz-Gatzagan. Jakionen bailarako 36 baserritar daude bilduta eta zenbait produktu elaboratu eta komerzializatzeko, hau da, ortuko hainbat produktu potetan sartu eta merkatuan saltzeko, beharrezko azpiegitura eskaintzen zaie.

## Solanako etxea bota



Solana eta Kapanagako etxeak bota egin zituzten urriaren 13an Area 20ko lanei hasiera emanez. Area 20 izeneko gune horretan Seminarioko patiotik hasi eta saihesbidera bitarteko lursailak sartzen dira eta bertan etxeak egiteko proiektua onartuta dauka Udalak, baina lursailen jabeekin tramitetan ari dira oraindik.

## PROTAGONISTAK



**NURIA GOMEZ**
Angiozartarra, Bergarako Turismo Bulegoan lanean ibilitakoa. Bilboko Guggenheim museoaren inaugurazio hamabostaldian izan zen lanean. Museoa bisitariei erakusten jardun zuen.

**XABIER AZKOITIA**
31 urteko urretxuarra, Santa Marina eta Elosuko parroko berria, urrian hasi zen Bergaran lanean. 1990an ordenatu zuten apaiz. Aurretik 7 urte eman ditu Legorretan eta Goierri-





**YOANA NIETO**
18 urteko bergarar modeloa Miss Gipuzkoa lehiaketako azkenetara heldu zen, beste 14 neskaren artean. 93-63-96 dira bere neurriak eta modelo ikasketak egin ditu Firs Models ajentzian.

**P. Manso Optika**

Irizar 2 — *Urte berri on!!* — ☎ 76 27 86




## Torunsak lantegi berria Hendaian

Azaroan jakin genuen Torunsak lantegi berria eraikiko zuela Hendaian. Lac Pays Basque deituko da lantegi berria eta lehenengo hiru urteetan 30 lanpostu sortuko ditu, nahiz eta hasieran, lantegia eraikitzearekin batera, 10 langile hasiko diren lanean. Fabrika berriak 100 milioi pezetako kapitala izango du eta %65a Torunsaren esku izango da. Hendaiako lantegian auto industriarako behar diren materialak egingo dituzte. Estatu Frantziarreko merkatua da Torunsaren bigarren bezero nagusia. Bergarako lantegiko enpresa komiteak lategi berriari buruz Berrigararen bidez enteratu zirela esan zuten eta zuzendaritzak langileei informaziorik eman ez izana salatu zuten. Bestalde, Bergarako lantegian inbertitzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskatu zioten zuzendarit-

## ESAN ZUTEN...



**J. JOSE ALVAREZ**
"UNEDek medioak behar ditu informatika arloan zein mediatikoan aurre-aurrean egoteko"
**UNEDEKO ZUZENDARIA**



**SUSANA IZA**
"Gehegizkoa izan da superfizie haundiena. Horiek zabaltzea modernitatearen adierazle balitz moduan..."
**DENDARIA**



**JERARDO ELORTZA**
"Kaltzada zaharrak, lehengo bidesarea, gurdi bideak e.a. ez dira errespetatu bailaran"
**IRAKASLEA**

## Gazteak soldaduzkaren aurka




Soldaduzkaren aurkako eta intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zuten azaroaren 12an, soldaduzkarako zozketak egin ziren egunean, Aranzadi ikastolako BBB eta UBIko Ipintza eta Miguel Altuna institutuetako ikasleek. Era berean, ikasleek egun osoko greba egin zuten. 38 gazte bergarar zozketatu zituzten soldaduzkara joateko eta horietatik bi soldaduzkatik libre geratu ziren.



## Gaztainerre eguna

Azaroaren azken egunean Gaztainerre eguna ospatu zen San Martin plazan. Jardunek eta AEK-Akulu eta Udal euskaltegiek antolatu zuten ekitaldia eta 50 kilo gaztaina erre eta banatu ziren. Jende ugari bildu zen plazan.

Zorionak eta urte berri on!!

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

FRAISKOZURI, 4 ☎ 76 13 41 - 76 18 42
MATXIATEGI, 5 ☎ 76 57 41 - 76 57 42

## MOTZEAN

**ASTE KULTURALA MIZPIRUALDEN**
Azaroaren 10etik 16ra bitartean Aste Kulturala antolatu zen zaharren egoitzan. Taun-Taun eta Oihulari Klown antzerki taldeen eta Musika Eskolako trikiti taldearen emanaldiak izan ziren besteak beste. Mizpirualde egoitzan Bergara, Antzuola eta Elgetako 110 lagun inguru daude.

**HOMOSEXUALITATEARI BURUZKO EKITALDIAK**
EGHAMek, Txapa Irratiak eta Jarraik antolatuta homosexualitateari buruzko hitzaldia eta irratsaio berezia izan ziren azaro amaieran.

**JUSTO GARATE BEKA**
Begoña Sarrionandia zornotzarrak jaso zuen aurtengo Justo Garate beka. Filologia ingelesean lizentziatua, Justo Garatek euskararentzako izan zuen garrantzia aztertuko du.

**INDUSTRIALDEARAKO KAPITAL GEHIKUNTZA**
Bergarako Industrialdearako 34.300.000 pezetako kapital gehikuntza onartu zuen Udalbatzak azaroaren 24an.

**JOSE MARI ETXANIZEN ALDEKO PLATAFORMA**
Jose Mari Etxaniz, otsailean 18 urte kartzeleratutik beteko dituen preso bergararra askatzea eskatzeko plataforma eratu zen azaroan.




## 120 bergarar Behobia-Donostia

